

**LASARTE-ORIAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA UKRAINAREN INBASIOARI BURUZ**

Errusiako Gobernuak Ukraina erasotzeko eta inbaditzeko hartutako erabakiaren ondorioz, joan den ostegunetik dozenaka pertsona hil dira, ehunka zauritu eta bonbetatik ihes egiten ari diren pertsona asko.

Errusiako Gobernuak egindako erasoak justifikaziorik gabeko erasoak da, inoiz ez bezalako larritasuna duena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, segurtasun globala eta egonkortasuna arriskuan jartzen dituen.

Horregatik guztiagatik, Lasarte-Oriako Udalak, Bozeramaileen Batzordeak proposatuta, honako hau onartu du:

- Errusiako Federazioak Ukrainan egindako ekintza militarrek, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria direnak, ahalik eta irmotasun handienarekin gaitzesten ditu. Justifikaziorik gabeko erasoak baita, Europako segurtasuna eta egonkortasuna kaltetzen dituen.
- Liskarrak berehala eteteko eta Errusiako armada Ukrainatik erabat erretiratzeko eskatzen du. Ukrainaren subiranotasuna eta lurralde-osotasuna babesten eta errespetatzen dugula baieztatzen dugu, eta Minskeko akordioetara itzultzeko deia egiten dugu.
- Ukrainari eta bere herriari gure elkartasun eta maitasun guztia erakusten diegu. Heriotzen galera deitoratzen dugu, gure atsekabe sakona helarazten dugu biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduagatik. Sentimendu hori gure herrialdean bizi den ukrainar komunitatera zabaltzen dugu.
- Europar Batasunari eskatzen diogu behar duen laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzeko Ukrainari eta Ukrainako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin, koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen dugu. Errusiari gogorarazten diogu nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra.
- Europar Batasunari eskatzen diogu ahalik eta lasterren antola dadila, eraso militar honek eragiten dituen errefuxiatuak ahalik eta baldintza onenetan hartzeko.
- Errusiako Federazioari imoki exijitzen diogu nazioarteko legedia errespetatzeko, armak uzteko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.
- Instamos a la Unión Europea a redoblar los esfuerzos para impulsar gestiones encaminadas a la desescalada al mantenimiento de la paz
- Europar Batasunari eskatzen diogu ahaleginak areagotu ditzala, bakeari eusteko deseskalatzea helburu duten kudeaketak bultzatzeko.
- Gure herrialdean errefuxiatu ukrainarrak hartzeko Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin koordinatutako planean aurrera egiten jarraitzeko eskatzen dugu.

Era berean, Lasarte-Oriako Udalaren osoko bilkurak honako hau erabaki du:

1. 2021eko likidazioan 5.000 euroko partida onartzea laguntza humanitariorako, Nazioarteko Gurutze Gorriaren bidez, Ukrainako errefuxiatuen beharrei erantzuteko.
2. Pertsona errefuxiatuen arloan eskumena duen erakundearen esku jartzea harreraretxebizitza bat Ukrainatik etorritako familia errefuxiatu batentzat.
3. Herritarrak Ukrainako herriari elkartasuna adieraztera animatzea, egun Ukrainatik ihes egiten duten pertsonekin eta sor daitezkeen tokiko ekimenekin lan egiten duten nazioarteko erakundeekin lankidetzan arituz.
4. Herritarrak martxoaren 9an, 12:00etan egingo den elkarretaratzera deitzea, Errusiako Federazioko armadak Ukrainari egindako erasoak gaitzesteko.

Lasarte-Orian, 2022ko martxoaren 8an.